

Jakinarazpena:

Irabazi xederik gabeko elkarteei diru laguntzak emateko **behin betiko erabakia**

Erabakiaren datuak:

Eguna	2016/05/31
Organoa	Tokiko Gobernu Batzarrak

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Herri Partaidetza Zerbitzuak ikusirik elkarteek beren helburuak lortzeko egiten duten lan handiaren bidez Donostiaren kalitate urbanoa eta ongizatea hobetzen zuzenean eragiten dutela, diru laguntza batzuk ematea proposatzen du, bere aurrekontu baliabideen eta **Gobernu Batzarrak 2016ko urtarrilaren 26an onartu eta 2016ko urtarrilaren 29an, G.A.O. 18. zb, argitaratu** ziren arauen arabera, herritarren partehartzea sustatzen eta garatzen duten proiektuak egiten dituzten entitateentzat, bai eta hiriko auzoetan ekintza komunitarioak egiten dituztenentzat ere.

Eskabideak egiteko epea pasa ondoren, oinarrietan jarritako irizpideei begiratu eta egindako eskabideak aztertu ditu izapideak egin dituen organoak. Hala, eskabideak balioetsi eta txostena egin du, behin-behineko ebazpen proposamena duena. Ondoren, gai hau aztertzeko eraturako Balorazio Batzordeak organo izapidegilearen balorazioa aztertu du, eta behin-behineko ebazpena Udalaren webean eta iragarki oholetan argitaratu da, eta legeak jartzen duen epea eman zaie entitateei egoki jotzen dituzten helegiteak egiteko bidea izan dezaten.

Epe horretan entitateek ez dituzte helegiteak aurkeztu.

Azterketa eta ondorioak Balorazio Batzordeak eginiko txostenean jasotzen dira.

Eranskin honetan izandako soberakinaren aurrean, 8.488,32€, 2.2. eranskineko diru laguntzearako xedaturiko zenbatekoa gehitzeko erabiliko da, berariazko oinarri hauek 9. artikuluan xedatzen duten moduan.

Hala, Gobernu Batzarrak eskuordetzan emandako aginpidea erabili eta hauxe da Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdinatsuneko eta Lankidetzako Zinegotzi Ordezkarri honek Gobernu Batzarrari proposatutako

## ERABAKIA:

1.- Ondoren azaltzen diren entitateei taulan azaltzen diren **diru laguntzak ematea**, 2016ko urtarrilarren 29ko GAOn argitaratutako deialdiaren oinarrien 2.1 eranskinaren arabera, denon intereseko gaietan herritarren parte hartzea sustatzen duten proiektuak:

Entitatea	IFZ	Proiektua	Lortutako puntuak	Diru laguntza kopurua
Elkartu	G20092326	Participación ciudadana como medio de promoción de la autonomía personal de las personas con discapacidad	47	3.408€
Emanhar Gizarte Elkartea	G75123554	Topalgune irekia	60	1.727€
Eusko Ikaskuntza	G20408639	La Sociedad que queremos, la Sociedad que tendremos	55	4.098,68€
Herripe	G20187746	Estudio general urbanístico de Herrera	23	1.700€
Igeldoko Herri Kontseilua	G20578258	2016ko Igeldoko egitasmoa	52	3.000€
Lanberri	G20208799	Txomin-Eneako weba	33	700€
M-Etxea	G75021717	Utokiak	72	2.500€
Osteguna Auzo Elkartea	G20491767	Revista Osteguna	30	2.100€

2.- Oinarrien arabera, **honako eskaerak ontzat ez eman** ondoren azaltzen diren arrazoiak azalduz:

Entitatea	IFZ	Proiektua	Arrazoiak
AGATA	G20583035	Difusión y participación a través del tango	Donostia Kulturara bideratua interesdunak eskatuta.
Amarabai Udalgintza Elkartea	G20803284	Amara Bizirik	Ez da gauzagarria. Ez dago koherentziarik deskribapen orokor, helburu, ekintza eta aurrekontuaren artean.
Emanhar Gizarte Elkartea	G75123554	Yinnigana	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. Proiektua ez da interes publikoko gaietarako buruzkoa, ezta partaidetza kolektiboaren eskubide politikoak gauzatzeko ekimena ere. Ez du auzoetako bizi kalitatea hobetzeko xederik, ezta udal politika publikoaren erabakitzeko eta garapen prozesuetan eragiteko aukerarik ere.



<b>Irutxulosub CD</b>	G75130427	Itsas zaborra out	Ez da diru laguntza deialdi honen xede, baina espedientea Ingurumenera bideratu da.
<b>Jam Espresio Kulturalaren Promozioa</b>	G20940441	KA / Kultura Alternatiboa	Ez da diru laguntza deialdi honen xede, baina espedientea Donostia Kulturara bideratu da.
<b>Lleno de Naranjas</b>	G75066159	¿A quien damos el premio naranja? (...)	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. Proiektua ez da interes publikoko gaiei buruzkoa, ezta partaidetza kolektiboaren eskubide politikoak gauzatzeko ekimena ere. Ez du auzoetako bizi kalitatea hobetzeko xederik, ezta udal politika publikoen erabakitze eta garapen prozesuetan eragiteko aukerarik ere.
<b>Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa</b>	G20068649	Argazkiherria	Ez da diru laguntza deialdi honen xede, baina espedientea Donostia Kulturara bideratu da.
<b>Stella Maris Pasaia</b>	G75131011	Atención primaria a la gente de mar en lo social y en lo cultural	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. Proiektua ez da interes publikoko gaiei buruzkoa, ezta partaidetza kolektiboaren eskubide politikoak gauzatzeko ekimena ere. Ez du auzoetako bizi kalitatea hobetzeko xederik, ezta udal politika publikoen erabakitze eta garapen prozesuetan eragiteko aukerarik ere.
<b>Uliako Auzo Elkarte</b>	G20066692	Donostiarrok nahi dugun Uliá	2015ean diruz lagundutako ekimenak. Bestalde, Partaidetza ez dago egituratua.
<b>Ulialde</b>	G75100727	Zure Ahotsa	Ez dago gai substantiborik, ezta detektatutako beharrik ere. Ez dago koherentziarik deskribapen orokor, helburu, ekintza eta aurrekontuaren artean.
<b>Urumea Ibaia Auzo Elkarte</b>	G20889051	Lanak bukatu-Loiola existe	2015ean diruz lagundutako ekimenak.

XXXXXXn. I 2012-04

**3.- 2.1. eranskinetako aurrekontuaren soberakina, 8.488,32€, 2.2. eranskinetako deialdira gehitzea, berriazko oinarri hauetako 9. Artikuluak aurreikusten duen moduan.**

**4.- Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak onarpena eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran (2.1. eranskinetako 7. art.: %70 Gobernu Batzarrak onartutakoan eta beste %30a ekarri beharreko egiaztagiria ekarri eta gero).**

**5.- Gastua (19.233,68€) 2016ko gastuen Aurrekontu Orokorreko Herri Partaidetza Zerbitzuko 481.01 kontu sailari eranstea.**

**6.- Erabaki hauek udal iragarki-oholean argitaratuz jakinaraztea.**

**Eta hala jakinarazten dizut**, jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako :

1.- Hamabost eguneko epea izango dutela, jakinarazi eta biharamunetik, diru laguntzari uko egiteko. Diru laguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berariaz ukorik adierazten ez badute.

2.- Erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsua harri ahal izango duzula Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea duzu, edo bestela zuzenean aurkatu dezakezu bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Esandako epeak jakinarazpen hau Udaletxeko iragarki taulan jarri den hurrengo egunetik hasiko dira. 2016ko maiatzaren 31an jarria izanik.

Donostia, 2016ko maiatzaren 31



Amaia Agirreolea Gomez  
HERRI PARTAIDETZA ZERBITZUBURUA